

## UNIBERTSITATE MAILAKO AZTERKETA (3.0 bertsioa)

**Talde iraunkorra.** Idoia Fernández, Ekain Rojo, Mario Zubiaga, Aitor Mendia, Karmele Artetxe (UPV/EHU) eta Nagore Ipiña (MU-HUHEZI).

**Bigarren geruza.** Gorka Alvarez (Eusko Legebiltzarrea, EAJ) eta Josu Amezaga (UPV/EHU).

**Ondorengo kontrasteak:** UPV/EHUtik Itziar Alkorta, Joxerra Bengoetxea eta UPN-tik Roldan Jurio eta Imanol Nuñez.

**Bilera osagarriak:**

- Ipar Euskal Herrian eragile desberdinekin egindako bilera. 2023/12/11.
- Arola Urdangarin, EuroEskualdeko Zuzendariarekin egindako bilera. Hendaia, 2024-1-11

## AZTERKETA ETA EZTABAIDAREN BERRERAIKUNTZA.

### I. Unibertsitateak Euskal lurraldeetan.

Unibertsitate mailako azterketa egiteko lehenik eta behin zertaz ari garen argitu behar dugu. EH-ko lurraldeetan honako unibertsitateek “operatzen” dute:

- EAE-n lau unibertsitate<sup>1</sup>.
  - UPV/EHU unibertsitate publikoa (1980), campusak hiru lurraldeetan eta gradu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen dituena. 45.482 ikasle; 4.545 irakasle eta 1.897 AZPko langile.
  - Deustuko Unibertsitatea (1886), Elizaren unibertsitate pribatua. 14.864 ikasle, 749 irakasle, 558 langile. Campusak: Bilbo eta Donostia eta egoitzak Madrilen eta Gasteizen.
  - Mondragon Unibertsitatea (1997), kooperatiben arloko unibertsitate pribatua. Campusak: Mondragon, Oñati, Eskoriatza, Aretxabaleta, Irun, Ordizia, Hernani, Donostia eta Bilbo. 6.288 irakasle, 625 irakasle, 165 langile.
  - EUNEIZ (2021), irabazi asmoko unibertsitate pribatua. Gasteiz.
- Nafarroan, bi unibertsitate:

<sup>1</sup> Eusko Jaurlaritzak (2023) Plan del sistema universitario 2023-2026. Hezkuntza Saila.

- UPNA/NUP, unibertsitate publikoa (1987). Iruñea eta Tuterako campusekin.
  - Universidad de Navarra (1952), unibertsitate katoliko pribatua Opus Deiren prelaturapean sortua. Campusak ditu: Iruñean, Donostian, Madrilan etaartzelolan.
- c. Ipar Euskal Herrian ez dago bertako unibertsitaterik. Bai ordea Goi-Mailako Hezkuntzako eskaintza:
- ESTIA, École supérieure des technologies industrielles avancées. Bidarte (1985). Chambre de commerce et d'industrie de Bayonne Pays Basque erakundeak sortua, pribatua.
  - KEDGE Business School, Baionan. KEDGE Business School Frantziako negozio-eskola bat da, 2013an Bordeaux Management School (lehen ESC Bordeaux) eta Euromed Management (lehen ESC Marseille) batzearen ondorioz sortu zena. Frantzian lau campusetan (Paris, Bordele, Marseille eta Toulon), Txinan bi (Shanghai eta Suzhou) eta elkartutako lau campus (Avignon, Bastia, Baiona, Dakar). KEDGE Business School irabazi-asmorik gabeko erakunde independentea da. "Interes orokorreko goi-mailako hezkuntzako erakunde pribatu" gisa aitortua dago Frantziako Goi Mailako Hezkuntza Ministeriotik.
  - UPPA Université de Pau et des Pays de l'Adour (1970). Unibertsitate publikoa bost campusekin : Pau, Tarbes, Mont de Marsan, Baiona eta Angelu.
  - Université de Bordeaux Montagne. Publikoa,

## II. Unibertsitateen aniztasuna, hizkuntzak eta kohesioa: zenbait eztabaidagai.

Eusko Ikaskuntzaren gune honetan **Kohesioa** da gogoetarako hitz gakoa zeren herri kohesionatu gisa irudikatu nahi baita etorkizuna. Kohesioak erreferentzia egiten dio eragileen arteko harreman estuari eta konpaktuari, hein batean dinamika zatikatuak gaitzitu eta elkarlanaren indar metatzailea sustatzen duena, jendartean ere inklusioa nagusitu dadin.

Aurrekoa kontuan hartuta, guztiok bat egiten dugun lehenengo ondorioa honakoa izan da: **unibertsitateen artean ez dago harreman esturik ezta harreman egituratzaile orokorrik ere**. Eta oztopo bakarra ez da muga politikoa, izan ere mugaren alde berean aritzen diren unibertsitateen artean ere harremanak ez dira hain sendoak. Badaude, gero ikusiko dugun bezala, elkarlan lerro interesgarriak, agian etorkizunean areagotu daitezkeenak eta fruituak eman ditzaketenak, baina partzialak dira eta gutxitan gaitzitzen dute indarrean dagoen zatiketa administratiboa.

Puntu honetan hain zuzen sortu da lehenengo eztabaida. Izan ere, zeren arabera lotu, zeren arabera kohesionatu? Hemen ertz inportante batekin egiten dugu topo, zeren gure

buruetan euskara eta euskal kultura baititugu eta biek jokatu behar omen baitute paper garrantzitsua kohesio gisa. Dilema moduan ere planteatu liteke:

- Unibertsitateen artean kohesiorako ardatza Euskara/euskal kultura bada, harremanak trinkotu beharko lirateke euskaraz aritzeko gaitasuna duten eragileen artean eta horrek eragiten du errealitate asko prozesutik kanpo uztea (beraz, kohesioa partziala litzateke, ez orohartzailea).
- Unibertsitateen arteko kohesioa sustatzeko, euskararekin batera frantsesa eta gaztelania ere aintzat hartu beharko lirateke zeren *praktikan Euskal Herrian hiru hizkuntz nagusi baitaude eta une honetan haietako batek ere ez baitu guztizko indar kohesionatzailerik*.

Hizkuntzen arteko harremanak une historiko honetan nola kontzeptualizatzen ditugun eta egikartzeko zein baldintzak aurreikusten ditugun ebaztea funtsezkoa da unibertsitateen arteko kohesioa irabazteko asmoa badugu.

Gure artean zer pentsa ematen diguten egoerak gertatu zaizkigu, esate baterako, Iparraldeko eta hegoaldeko unibertsitate irakasleak bildu eta hizkuntz komunikazion ezean ingelesez aritu behar izatea. Hau da, hiru hizkuntza izan eta batek berak ere ez du guztiok komunikatzeko balio. Hezkuntza sistema ez-unibertsitarioari begiratzen badiogu, egoerak ere bitxiak dira. Hegoaldeko eskoletan eredu hirueledunak bultzatzen dira baina hirugarren hizkuntza ingelesa izaten da. Badakigu jakin, baina, Adimen Artifizialaren aurrerapenekin aldi bereko itzulpen automatikoa, idatziz zein ahozkoa, oso gertu dugula eta une honetan haur edo lehen hezkuntzan dauden umeei hamabost urte barru beste harreman mota bat izan dezaketela gaur egun unibertsitateen ingelesarekin, zeren makinak ahalbidetuko baitiete komunikazioa (zientzian, enpresetan, harreman birtualetan...). Hau horrela balitz, zein hizkuntzak lagunduko ligukete asmo kohesionatzailean? Euskarak bakarrik? Taldean euskararen indar kohesionatzailea albo batera utzi gabe, kohesiorako baliabide guztiak eraginkorki erabili behar direla azpimarratzen da. Unibertsitateen arteko harremanak eta mugaz gaindiko egitasmoak buruan euskaraz haratago beste hizkuntzen ezagutza eta erabilera aintzat hartu behar direla argi dugu.

### III. Euskal Unibertsitatearen proiektu historikoa gaurkotu beharra: Goi mailako Hezkuntzaren eta Ikerketaren Euskal-Herriko Eremu Bateratua

Unibertsitateetako taldean egiten dugun hizkuntzen inguruko azterketa honek, nolabait, Euskal Unibertsitatearen proiektu historikoa berritu/gaurkotu behar dela esatera eramaten gaitu. Gerraurrean Eusko Ikaskuntzatik bultzatutako hastapeneko asmoa gerrarekin amaitu zen; 70. hamarkadako beste formulazioak ere berea eman

du eta egun badugu euskaraz irakasten eta ikasten duen unibertsitate jende kopuru izugarria. Hau nahikoa al da? Euskaraz ikasten duen ikasle kopurua eta euskaraz irakasten duen irakasle kopurua areagotzearekin (posible balitz) lortuko al genuke euskal unibertsitatea? Taldean eztabaidatu dugu eta ondorioztatzen duguna da XXI. mendearen *testuinguruan funtziona dezakeen Euskal Unibertsitatearen proiekturik ez dugula*. Badaude unibertsitate ugari, goi mailako hezkuntza eskaintza zabala, ikerketa jarduera trinkoa baina funtzionamendua korporatiboa, auto-erreferentziala eta zatikatua da; ez da lortzen unibertsitateak egitasmo komun eta partekatu baten inguruan jartzetik. Arrazoiak pisuzkoak dira, besteak beste, *jaitsiera demografiakoa, unibertsitate bakoitzak bere berezitasuna galtzeko beldurra, tamaina eta baliabideen desberdintasuna eta finantzazioa*.

Oztopoak oztopo, baina, XXI. mendeko euskal jendarteari erantzuten dion euskal unibertsitatearen proiektuaren formulazio berria behar da, konplexutasunetik eraikitako proiektu kohesionatzailea. Beste etapetan ikusi den bezala, Goi-mailako hezkuntzan jarduten duten unibertsitate eta erakundeen elkargunea behar da, bakoitzaren ezaugarri eta potentzialtasunak partekatzeko aukera ematen duen “zerbait”, ikerketari zein formazioari indarra ematen dietenak.

Horren aurrean agertzen zaigun hitz magikoa “sistema” da. El-ko jardueretan “sistemaz” aritzen gara, euskal hezkuntza sistemaz alegia, baina hezkuntza sistemak XIX. mendean estatuek sortutako egiturak dira; estaturik gabe ez da inongo hezkuntza sistematik sortu; beraz, beste zerbaitez pentsatu behar da.

Sistema bat eratzeko estaturik ez izateak ez du esan nahi bide politikoa ezin denik erabili. Halakoak irudikatzean batzuetan bi muga biltzen zaizkigu: *ezintasun politikoa eta kamuskeria intelektuala* (Karmele Artetxe). Horiek gainditzean datza kontua. Bide politikoa erabili behar dira, dauden tresnak ausardiaz eta imajinazioz erabiliz; bistan da mugatzaile errealak eta objektiboak daudela baina beste hainbat gure muga mentalak dira.

Norabide horretan, esplorazio bide bat Goi-mailako Hezkuntzaren Europar Ereku Bateratuaren ideia mutatuz, Goi-mailako Hezkuntzaren eta Ikerketaren Euskal Ereku Bateratua izan daiteke. GHEE une honetan oso sistema desberdinak biltzen dituen kontzeptua da eta oso ezagunak eta ohikoak diren lerroak eta praktikak barnebiltzen ditu. Adibidez:

- EAEko eta Nafarroako gobernuetan unibertsitateei zuzendutako politikek *bikaintasunezko zientzia, nazioartekotzea, kalitatezko irakaskuntza, euskal kultura sustatzea, aukera berdintasuna, unibertsitate-enpresa harremana, eta digitalizazioa* bezalako gaiak azpimarratzen dituzte.

- Euskal Herriko zenbait unibertsitate Europar Unibertsitateetako konsortzioetako kide dira: UPV/EHU Enlight; UPNA Campus Iberus; U Deusto Europa UNIC... Bere momentuan euskal unibertsitateak elkarrekin lerrokatzeko aukera profitatu ez zen arren, ingurune hauetan garatzen diren ekimenak eta programak eredu gisa erabil litezke (ikasleen/ikertzaileen mugikortasuna; formazioa; sinposiumak...).

Lerro horiek komunak badira, zergatik ez erabili maila txikiagoan fokua jarriz eta gertuko jendarteari ekarpena egiteko sustatu? Goi-mailako Hezkuntzaren eta Ikerketaren Euskal Eremu Bateratua izan liteke, hein batean, proiektu izarra.

## **IV. Goi mailako hezkuntzan eta ikerkuntzan jadanik dauden ekintza kohesionatzaileak**

Aurretik unibertsitateen arteko harremanak ahulak eta partzialak direla aipatu dugu. Hala ere, ez da hutsetik abiatzen eta Goi-mailako hezkuntzan martxan jarduera kohesionatzaileak aletu ditugu. Honakoak:

### **A. Iparraldea\_Hegoaldea lotzen dutenak**

- Iparraldeko ikasleak UPV/EHUra etorri graduak egitera, euskaraz ikasten jarraitzeko. Maila indibiduala. 2019-tik aurrera hau modu antolatuagoan egiten da, Seaskarekin koordinaturik.
- Hegoaldeko unibertsitateak eta Iparraldean egoitza duten unibertsitateen arteko lankidetzak:
  1. Tutorekidetzako tesiak.
  2. Euskal Ikasketak.
  3. Eskola Futura (bi urtez iraun zuen proiektua; amaituta)
  4. Kazetari euskaldunak formatzeko graduondoa (duala/une honetan martxan).
- Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen duen IkerGazte jardunaldia, ikertzaile euskaldun gazteen topagunea.
- Mugarteko Uda Ikastaroak. Euroeskualdeko 5 unibertsitate publikok urtero egiten ditugu mugarteko uda ikastaroak: UB, UBM, NUP, UPV/EHU UPPA
- .

### **B. EAEko unibertsitateen artekoak**

- Arantzazu Lab ikerketa gunea: EHU, DU eta MU.
- InpAkta aldizkaria<sup>2</sup>.

---

<sup>2</sup> *InpAkta* is an English and Basque language-based multidisciplinary journal from all areas of knowledge, focused on publishing high quality research works expected to have a societal impact, either globally or specifically in the Basque community. Due to the nature of these works, this journal will include, in addition to the technical papers, short summaries of each research work, these will be written on a easy to understand language for the general public.

- EAEko unibertsitateetako hezkuntzako dekanoen artean konfiantza giroa: elkarlanerako oinarri egokia.

### C. Nafarroako unibertsitateen artekoak

Atal honi dagokionez, elkarlan gehiago dagoela badakigu, baina ez dugu diagnostiko zehatzik. Esate baterako, Akitania Berria, Euskadi, Nafarroa Euroeskualdeak proiektu deialdi desberdinak egiten ditu urtero eta bertara taldeak aurkezten dira. Ez dugu horren informazio zehatzik baina hor ikerketa taldeak ari dira, batzuk kultura, hizkuntza eta hezkuntzarekin lotuta. Interesgarria izango litzateke diagnostiko hori osatzea zeren oinarri sendoa bailitzateke ikerketa eremua ikusgarri egiteko (orain oso opakoa da).

### V. Goi mailako hezkuntzan eta ikerkuntzan martxan jarri litezkeen ekintza kohesionatzaileak.

Honen inguruan, ideia/aukera desberdinak atera dira. Lehen hurbilpena estrukturala da eta nagusiki Iparraldean unibertsitate mailako hezkuntza nola indartu/sustatu galderari erantzun nahi dio. 2002an Batera Iparraldeko erakunde eta elkarte desberdinek Batera izeneko plataforma eratu zuten: « plate-forme de revendications pour le Pays basque : un département, une chambre d'agriculture, une université de plein exercice, et la co-officialisation de la langue. 2020an CAPB - Conférence Universitaire Pays Basque ospatu zen Euskal Elkargoak deituta eta bertan azaldu zen horren beharra eta horren inguruko egitasmoak. Pandemiak dinamika hau moztu zuen eta ez dakigu zehazki zertan dagoen. Dakigun bakarra zera da: UPPA-k baduela hurrengo urteetan Baionan ikasle gehiago edukitzeko egitasmoa, hau da, hazteko helburua dutela.

Hegoaldea eta Iparraldea Goi-mailako hezkuntzan lotzeko honakoak ikusten dira:

- Iparraldean unibertsitatea sortu, eta Hegoaldekoak lankide izan. Bide hau ez dakigu jorratzen ari ote den baina epe ertain luzekoa izango litzateke.
- Hegoaldeko unibertsitateak Iparraldean ekarpena egin. LOSUK ematen du baina agian ez da egokiena.
- Gaur gaurkoz, jadanik daudenen arteko harremanak estutzearen bidea; hau litzateke egingarriena eta egokiena une honetan.

Aukera hauek gauzatzeko orduan argi eduki behar dugu muga kohesiorako oztopo ikusi ohi den arren Goi-mailako hezkuntzan oztopoaz gain aukera ere izan daitekeela. Unibertsitateari gero eta gehiago exijitzen zaion nazioartekotzea gauzatzeko modua da mugaz gaineko lankidetza eta pizgarria izan daiteke

aitortzak, finantzazioa eta bestelako abantaila batzuk lortzeko (tresnak: nazioarteko proiektu deialdiak, tutorekidetzako tesiak, nazioarteko ikerketa egonaldiak, nazioarteko tesiak, Erasmus, eta abar).

Argi ikusten dena zera da: elkartruke hauek parte guztiek zerbait irabazteko izan behar dutela. Izan ere, sarritan argi ikusten dugu Hegoaldeko unibertsitateek iparraldeari zer “eman” diezaioketen goi-mailako hezkuntzan edota ikerkuntzan baina gutxitan ikusten dugu iparraldeak hegoaldeko unibertsitateei nolako ekarpena egin diezaiokeen. Hau gakoa da: beharrak eta aukerak nola konjugatu ahal ditugun denak indartuta ateratzeko.

Aukerak egingarri bilakatzeko, eta beti ere Goi-mailako Hezkuntzaren eta Ikerketaren Euskal Eremu Bateratuaren ideia aglutinatzailearen aterkipean, estrategikoak bilaka daitezkeen “tresnak” definitu behar ditugu. Honakoak dira une honetan:

- Akitania Berria, Euskadi Nafarroa Euro-eskualdea. Une honetan hiru herrialdeak biltzen dituen egitura da, finantziarioa duena eta mugaz bi aldeak batzeko eginkizuna duena eta azken urteetan unibertsitate esparrua bere ildo estrategikoetan kokatu duena. Argi dugu egiturak sortzea oso zaila dela eta mantentzea are zailago. Daudenak ongi baliatzean datza benetako aukera. Mugarteko unibertsitate kooperazioa oso landurik dago Europako beste eremu batzuetan (nagusiki Frantzia eta Alemania artean), baina baita Espainiako Estatuaren barruan ere, Galiza eta Portugalgo unibertsitateen artean. Bertan, duela 10 urte azpiegitura zientifikoak partekatzen dituzte (laborategi, aldizkari eta abar) FEDER funtsak horretarako erabiliz. Unibertsitate arteko lankidetzan oso atzera gaude Akitania Berria, Euskadi, Nafarroa euro-eskualdean. Beste mugarteko eremu batzuetan nola dauden eta zein funts erabiltzen diren aipatu beharko genuke, *benchmark* bat eginez. Eta gurean "normaltasunez" kolaborazio hori indartu beharra dagoela aditzera eman.
- Ley Orgánica 2/2023, de 22 de marzo, del Sistema Universitario LOSU<sup>3</sup> izeneko lege berriak ere aukera batzuk zabaltzen ditu.

<sup>3</sup> Artículo 29. Centros en el extranjero.

1. Las universidades podrán crear centros en el extranjero, que impartan enseñanzas conducentes a la obtención de títulos universitarios de carácter oficial y validez y eficacia en todo el Estado o títulos propios, por sí solos o mediante acuerdos con otras instituciones nacionales, supranacionales o extranjeras, que tendrán la estructura y el régimen establecido en la normativa aplicable.

2. Los centros en el extranjero podrán actuar como agentes de internacionalización de las universidades que los hayan creado, en colaboración con el Servicio Exterior del Estado, en ejercicio de las competencias de acción exterior en materia educativa previstas en su normativa específica.

3. La propuesta de creación y supresión de los centros previstos en el apartado 1 corresponderá al Consejo de Gobierno de la universidad y se aprobará por la Comunidad Autónoma competente, previo informe favorable de los Ministerios de Universidades y de Asuntos Exteriores, Unión Europea y Cooperación.

- 29. artikuluan Centros en el extranjero izenekoen sorrera aurreikusten du. Inork ez du hau garatu baina juridikoki honek ze aukera ematen duen aztertu beharko genuke (beste kontua da hori egokia den edota politikoki egin nahi ote den).
- 69. Artikuluan, 1 atalean, irakasle berriak akreditatzeko baldintza berriak ezartzen dira, besteak beste, tesia defendatu ez den beste unibertsitate batean jarduerak (ikerkuntza edo irakaskuntzakoak) garatzea<sup>4</sup>. Baldintza hau aukera bezala profitatu liteke dauden harremanak estutzeko eta bizkortzeko eta berriak sortzeko (mugikortasuna).
- Zuzeneko beste bide juridikoa da partekatzen ditugun pertsona juridikoetan unibertsitateen arteko parte hartzea indartzea. Adibidez, Euskampusen UB eta UPV/EHU daude. Hor egon daiteke ESTIA ere. Aldi berean, ESTIA fundazioan Euskampus egon daiteke. Horrelako elkarrekotasun eskema gehiago landu beharko genuke.

## VI. Goi mailako hezkuntzan eta ikerkuntzan hezkuntza sistema ez-unibertsitarioaren mesedetara nola jarri.

Gai honek aparteko azterketa behar du. Unibertsitateek irakaskuntza, ikerkuntza eta transferentzia “misioei” erantzuten diegu. Barruan zientzia guztiak sartzen dira, baita hezkuntzari dagokiona ere. Izan ere, hezkuntza lanbidea da (irakasleak, hezitzaileak, pedagogoak...) eta alde horretatik praktika profesionala da; baina unibertsitateetan a) profesional horien hastapeneko formazioa egiten dugu (graduak); b) hezkuntzaren arloan lan zientifikoa egin nahi dutenak formatzen ditugu (masterrak eta doktoregoak); d) hezkuntza zientzien arloko ikerketa zientifikoa egiten dugu.

Bi mundu hauek profesioa eta zientziarena, logikaz, oso lotuta egon beharko lukete baina hor ere kohesio falta dagoela esango genuke. Elkarren beharra dute baina sozialki oso distantzia eta mesfidantza handia dago euren artean.

Azkenaldi honetan EAEko 2023-26 Unibertsitate Sistemaren Plana baitan aukera garrantzitsua zabaldu da, zeren Hezkuntza Zientziak ezagutza arlo lehenetsi bezala zehaztu eta Unibertsitatea+Hezkuntza Estrategiari ekin baitzaio. Arlo horretan unibertsitateak eta eskolak elkarlanean ikerketa/ekintza proiektuak diruz lagunduko dira. Prozesua hastapenetan dago (deialdia ez da oraindik ebatzi) baina EAEko hiru unibertsitateen artean sinergiak egin litezke (Nagore Ipiña). Lanbidea eta zientziaren artean zubi hauek egitea funtsezkoa da baldin eta hezkuntza bere orokortasunean

---

<sup>4</sup> En todo caso, será requisito para obtener la acreditación, la realización de actividades de investigación o docencia en universidades y/o centros de investigación distintos de aquella institución en la que se presentó la tesis doctoral, de acuerdo con los criterios establecidos reglamentariamente.



indartu nahi bada. Bide horretan tesi “industrialen” antzekorako zerbait egitea interesgarria izan liteke, hau da, errealitatek eta errealitatean eragiteko tesiak (transferentziako tesiak).

Irakasle euskaldunak dira kohesiorako beste aukera handi bat. Taldean Eskola Futura proiektua kasu interesgarri gisa aztertu dugu (Idoia Fernandez). Laburki:

- a. Iparraldean irakasle euskaldunak falta dira.
- b. Hegoaldean irakasle euskaldun titulatuak daude baina ez dakite frantsesez; dauden moduan ezin dira Iparraldeko irakasle bilakatu (oposaketa eta indukzioa).
- c. Hegoaldean ez dago frantsesez dakien irakaslerik (instituetan aritzeko, adibidez).

Eskola Futura izan zen honi aurre egiteko POCTEFAk diruz lagundu eta Euroeskualdetik muntatu zen proiektua. UPV/EHU-k, UPNA-k eta UB Montagne-k parte hartu zuten. Proiektuak hegoaldeko ikasle titulatuak aukeratu eta Bordelera eraman zituen urte betez frantsesa ikastera eta iparraldekoak hegoaldera ekarri zituen euskara ikastera. Bigarren urtean hezkuntzan trebatu ziren Frantziako oposizioetan aurkezteko. Pandemiarekin kointziditu zuen Eskola Futuraren amaierak baina ondo legoke jakitea zein izen zen azken balantzea.

## VII. Azken ondorioak (behin-behinekoak)

Laburki bada ere, honako ideiak azpimarratuko genituzke:

1. Euskal lurraldeetan Unibertsitateen artean egun dagoen harremana partziala eta ahula da.
2. Harreman hauek trinkotzeko eta kohesioa irabazteko euskaraz gain beste hizkuntzak ere baliatu behar ditugu.
3. Hezkuntza sistemak dira, berez, egiturazko kohesioa sortzen omen dituzten lanabesak baina halakoak estatuek bakarrik jartzen dituzte martxan. Gurean sistemak badaude baina ez egiturazko logika bakar baten menpean.
4. Sistema bakar bat izateko ezintasun objektiboak ez gaitu politikoki ekiteko ezintasunean amildu behar. Dauden tresna politikoak imajinazioz erabili behar ditugu zeren duten aukerei etekin gutxi ateratzen baitiegu (kamustasun intelektuala).
5. Une honetan badaude martxan kohesionatzaileak diren proiektuak. Batzuk zerrendatu ditugu baina gehiago daudela badakigu (diagnostiko zabalagoa behar dugu, batez ere ikerketa arloan).

6. Badaude kohesioa bultzatzeko zenbait aukera berri (lehenengo hurbilpenean batzuk aletu ditugu; orain sakonki aztertu eta akaso beste berri batzuk azaleratuko dira).

Proiektu izarra: **Goi mailako Hezkuntzaren eta Ikerketaren Euskal-Herriko Eremu Bateratua sortzea.**

Norabide honetan, Euroeskualdeak 2024.eko otsailaren 12an Miarritzen egingo duen Unibertsitateko **2. Foro Topaketa hitzordu interesgarria izan daiteke**. Izan ere, bertan Euroeskualdeko plataforma berria aurkeztuko da. Tresna horrekin lurralde honetan dauden unibertsitate eragileen harremanei euskarri bat eman nahi zaie euren arteko harremanak trinkotzeko. Tresna horrek, iragazi jakin batzuk jarrita, gure interesekin bat egiten duten pertsonak konektatzeko balio dezake.

Honetaz aparte, Euroeskualdetik iraganean zein orain indarrean elkarrekin lanean dauden taldeei buruzko informazioa eman ahal digutela ziurtatu digute, hain zuzen ere egoeraren mapa errealagoa egiteko.

## HURRENGO URRATSAK

Parte-hartzen ari garen prozesuaren helmuga Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresua dugu (2024-ko Urriak 2, 3, 4). "Elkartzen gaituena" lelopean, Euskal Herriko kohesiorako proposamenak eta itun berrietarako bideak eskainiko ditugu. Ordurako, gure azken produktuak izango diren "PROIEKTU IZARREN" eraikuntza bermatu behar dugu. Horretarako, hiru on-line mintegi (urtarrila-martxoa-apirila) eta ekainean talde handia eta eragileak bilduko duen foroa gauzatzea adostu genuen. Parte-hartzaile bakoitzeko osotara 50 orduko lanketa estimatzen da.

### LAN-MINTEGIA.

- 1) Lan-txostena. Ficoban dibergentzia fasea ireki genuen eta horren emaitza eskuartean duzun txosten hau da. Abiapuntu hau zuetako batzuen ekarpenak jaso ditu eta orain analisi-ariketa honek konbergentziaren fasean kokatzea eraman behar gaitu. Gainerako etapetan landutakoa ezagutzea nahiko bazenute, eskuratzeko bidea errazten dizuet ere <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/proiektuak/hezkuntza-sistema-etorkizuna-elkarrekin-lantzen/pr-72/#etapak>.
- 2) On-line hurrengo saioaren norabidea. Saio emankorra izan dadin, aurretik landuta ekartzea eskertuko genuke.

- Txosten hau (ber)osatzeko elementuetan pentsatu.
- Proiektu izarra **Goi mailako Hezkuntzaren eta Ikerketaren Euskal-Herriko Eremu Bateratua sortzea** bada, ideia-ardatzak zirriborratu beharko ditugu, unibertsitateek dugun behar/aukerak profitatuz eta biderkatuz.
- Taldeak izango duen estrategia definitzea. Ideia/ezaugarri egituratzaile horiek egikaritzeko pausu zehatzak zeintzuk izango diren zehaztea.
- Askatu eta sakondu beharreko eztabaida kritikoak identifikatzea.

3) Data eta ordua adosteko, hobekien datorkizuna aukeratu: (doodle-a eskainiko zaie)